
Antartika inbaditu dezaketen espezieak

Ikerketa batek datozen hamar urteotan Antartikako Penintsula inbaditzeko arrisku handiena ekarriko duten munduko animalia- eta landare-espezieak identifikatu ditu. Ikertzaileen arabera, hamahiru espezie dira arrisku handiena sortzen dutenak; tartean, hainbat muskuilu eta karramarro, eta baita loredun landareak, akaroak eta bestelako artropodoak ere.



ARG.: David Barnes @BAS.

Ehunka ikerketa eta datu-base aztertu dituzte espezie inbaditzaile arriskutsuenen bila. Izan ere, poloetako komunitate biologiko itsastar zein lurterra oso zaurgarriak dira munduko beste tokietatik iritsitako espezieen inbasioaren aurrean. Kasu batzuetan, komunitate biologikoak suntsitzeko arriskua ikusi dute *Global Change Biology* aldizkariak argitaratutako lanean.

Hazten ari den turismoa, ikerketa zientifikoko jarduerak eta arrantza aipatu dituzte, besteak beste, espezie arrotzen eramaile gisa. Inbaditzaileek aurrerago jo ez dezaten, biosegurtasunerako kontrol integralak ezartzeko eskatu diete ikerketaren egileek han aritzen diren zientzialariei eta turismo-eta arrantza-sektoreari. ●

Industria-iraultzaren hastapenetatik metatu ziren poluitzaileak Himalaiako glaziarretan



Dasuopu da izotz-zutabe bat jaso den lekurik garaiena. ARG.: Ikerketa Polar eta Klimatikoen Byrd Zentroa.

Industria-iraultzaren ezaugarri nagusietakoa energia-kontsumoa izan zen: ikatza izan zen aldaketa bultzatu zuen erregaia. Orain frogatu dutenez, errekuntza haren aztarnak iraultzaren hasieratik bertatik metatu ziren Himalaiako goi-glaziarretan.

Dasuopuko izotz-zutabe bat ikertuta irisi dira ondorio horretara. Hura da izotz-zutabe bat hartu duten lekurik garaiena: 7.200 metrora dago, Shishapangman. 1997an hartu zuten, eta, orain, 23 metalen aztarnak neurtu dituzte, 1499-1992 epealdiari dagokion zatian.

Ikerketak agerian utzi du Britainia Handian sortu zen industria-iraultzak eragin nabarmena izan zuela airean, izotz-zutabearen ordura arte baino metal toxiko gehiago aurkitu baitute 1780tik aurrera. Metal horien artean daude kadmioa, kromoa, zinka eta nikela; guztiak, ikatzaren errekuntzaren azpi-produktuak.

Iraganean metatutako poluzioak ekar dezakeen arriskua ere aipatu dute ikertzaileek. Izan ere, glaziarrek urtzean, ura poluituta joango da mendian behera, eta metal toxikoak bizidunetan metatzeko eta kontzentratzeko arriskua dago. *PNAS* aldizkarian argitaratu dute ikerketa. ●